



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2017IPLE0012

Eguna: 2017-09-27

Ordua: 13:30 – 14:23

Tokia: Areto nagusia

Bertaratuak

- Zorione Etxezarraga Ortuondo	EAJ-PNV
- Juan Martin Arregui Sagües	EAJ-PNV
- Ramón Aranzasti Loyarte	EAJ-PNV
- Olaia Pastoriza Santos	EAJ-PNV
- Nerea Zusberro Alberro	EAJ-PNV
- Urkiri Salaberria Gracia	EAJ-PNV
- Andoni Gartzia Arruabarrena	EHbildu
- Ione Olatziregi Mendiorotz	EHbildu
- Ander Goicoechea Ocariz	EHbildu
- Ainara Vázquez Martínez	Ehbildu
- M ^a Teresa Bernal Monroy	EHbildu
- Iker Goñi Salaberria	Ehbildu
- Mikel Durán Gonzalo	Euskadiko Sozialistak

Bertaratu ez direnak

Bertaratutako udal teknikariak

- Amaia Bengoetxea Arrozpide, ordezko udal kontu-hartzailea

Idazkaria

- Kontxi Urdanpilleta Santamaría, ordezko udal idazkaria

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / N ^o	ORDEN DEL DIA
2017ko irailaren 13ko akta onartzea.	1.	Aprobación del acta de 13 de septiembre de 2017.
Zerga Ordenantzak 2018: hasierako onarpena	2.	Ordenanzas fiscales 2018: aprobación inicial.
Hiri Antolaketako Plan Orokorraren aldaketa HEA 22 “Ubarburu Zabalpena” eremuari dagokionez: alegazioak erantzun eta behin behineko onarpena.	3.	Modificación del Plan General de Ordenación Urbana de Astigarraga, referida a la AIU 22 “Ubarburu Zabalpena”: respuesta a las alegaciones y aprobación provisional.
Kale izendegiaren aldaketa	4.	Modificación de callejero



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

EHBildu taldearen mozioa: “Kataluinarekin bat, demokraziarekin bat”	5.	Moción de EHBildu: “con Cataluña, con la democracia”
Informazio, galdera eta eskariak.	6.	Información, ruegos y preguntas.

Esan-eginak eta erabakiak

1.-2017ko irailaren 13ko akta onartzea.

Akta aho batez onartu da.

1.- Aprobación del acta de 13 de septiembre de 2017.

El acta se aprueba por unanimidad

2.- Zerga Ordenantzak 2018: hasierako onarpena

Alkateak ogasun eta ondare batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Ordenantza fiskalei buruzko Testu Bateginaren hasierako onespena, 2018ko urtarrilaren 1ean indarrean jartzeko.

Bigarrena.- 11/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, hasierako onespeneren erabakia jendaurrean jarriko da 30 egun baliodunez.

Hirugarrena.- Alegaziorik aurkeztuz gero, Ogasun batzordeak egiten duen irizpenaren proposamenaren arabera ebatziko dira.

Laugarrena.- Alegaziorik aurkezten ez bada, hasierako onspen-erabakia behin betiko bihurtuko da beste erabaki bat hartu behar izan gabe.

Jarraian adierazi du zergetan ez dela igoerarik aplikatu eta aldaketa nabariena dela taimaina handiko hondakinen bilketa-zerbitzuagatik tasarik ez kobratzea. Azaldu du erabaki horren asmoa dela herriko kaleak txukunago egotea eta jendea ez ateratzea horiek edozein modutan. Bukatzeko, komentatu du ordenantza hasierako izaeraz onartuta alegazio tekniko eta

2.- Ordenanzas fiscales 2018: aprobación inicial.

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

Primero.- Aprobación inicial del texto refundido de ordenanzas fiscales para su entrada en vigor el 1 de enero de 2018.

Segundo.- Conforme a lo dispuesto en el artículo 16 de la Norma Foral 11/1989, el acuerdo de aprobación inicial se someterá a información pública durante el plazo de 30 días hábiles.

Tercero.- Caso de formularse alegaciones serán resueltas a propuesta del dictamen que emita la comisión de hacienda.

Cuarto.- Caso de no formularse alegaciones el acuerdo de aprobación inicial devendrá en definitivo sin necesidad de nuevo acuerdo

A continuación señala que no se ha aplicado subida alguna en los impuestos y que el cambio más reseñable consiste en no cobrar ninguna tasa por la recogida de grandes residuos. Expone que el propósito de dicho acuerdo es que las calles de la localidad estén más limpias y que la gente no saque esos residuos de cualquier manera. Para concluir, comenta que



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

politikoak aurkezteko epea irekitzen dela.

Andoni zinegotziak hitza hartu eta adierazi du lehen ere ez zela kobratzen, baina arazoa berdina zela. Azaldu du abstenitu egingo direla, ordenantza hobetu aztertu nahi dutelako, eta gaineratu du kezkaturako daudela kultura batzordeak ekitaldien sarreren inguruan egindako proposamenarekin. Bukatzeko komentatu du alegazio epean, beren proposamena egingo dutela.

Jarraian, irizpena bozkatzeari ekin zaio, eta **onartu** da aldeko 7 botoekin (EAJ-PNVko eta Euskadiko Sozialisteko kideak) eta 6 abstentziorekin (EHBilduko kideak).

3.- Hiri Antolaketako Plan Orokorren aldaketa HEA 22 "Ubarburu Zabalpena" eremuari dagokionez: alegazioak erantzun eta behin behineko onarpena.

Alkateak hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiroko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- EZESTEIA Jose Ramón LATASA – ANTONGA SL enpresaren izenean – José Luis IRAZUSTA – SALDUMBORDA S.L enpresaren izenari – eta Félix Miguel ELARRE – UBARBURU NEW S.L enpresaren izenari – formulaturako alegazioak. 2018ko irailaren 18ko txosten juridikoa oinarri hartuta.

Bigarrena.- Behin-behineko onartzea "Ubarburu Zabalpena" Hirigintza Jarduerarako 22. Eremuari dagokion HAPOaren aldaketa-dokumentua.

Hirugarrena.- Behin-behineko onartutako dokumentua EAeko Lurralde Antolamendurako Batzordera igortzea.

Laugarrena.- Alegatzaileei erabaki hau jakinaraztea.

mediante la aprobación con carácter inicial de la ordenanza se abre el plazo para la presentación de alegaciones técnicas y políticas.

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que anteriormente tampoco se cobraba, pero que el problema era el mismo. Expone que se van a abstener, porque quieren estudiar mejor la ordenanza, y añade que están preocupados con la propuesta realizada por la comisión de cultura en torno a las entradas de los eventos. Para concluir, comenta que efectuarán su propuesta dentro del plazo de alegaciones.

A continuación se procede la votación del dictamen, que sea **aprueba** con 7 votos a favor (de los miembros de EAJ-PNV y Socialistas Vascos) y 6 abstenciones (de los miembros de EHBildu).

3.- Modificación del Plan General de Ordenación Urbana de Astigarraga, referida a la AIU 22 "Ubarburu Zabalpena": respuesta a las alegaciones y aprobación provisional.

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo, vivienda y Medio Ambiente:

Primero.- Desestimar las alegaciones formuladas por José Ramón LATASA, en representación de ANTOÑAGA S.L., por José Luis IRAZUSTA, en representación de SALDUMBORDA S.L. y por Félix Miguel ELARRE, en representación de UBARBURU NEW S.L., en base al informe jurídico de fecha 18 de septiembre de 2018.

Segundo.- Aprobar provisionalmente el Documento de Modificación del P.G.O.U referido al Área A.I.U 22 "Ubarburu Zabalpena".

Tercero.- Remitir el Documento aprobado provisionalmente a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco

Cuarto.- Notificar el presente acuerdo a los alegantes.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Jarraian, irizpena bozkatzeari ekin zaio, eta aho batez **onartu** da.

A continuación se procede a la votación del dictamen, que se **aprueba** por unanimidad.

4.- Kale izendegiaren aldaketa

Alkateak obra eta zerbitzu batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

A.I.U.9 eremuan eraikitze prozesuan diren a.2/V.L.5, a.2/V.L.6, a.2/V.L.7 eraikineiri Aiotzategi kaleko 5, 7, 9, 11, 13 eta 15 zenbakiak ematea.

Jarraian, irizpena bozkatzeari ekin zaio, eta aho batez **onartu** da.

4.- Modificación de callejero

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de obras y servicios:

Asignar a los edificios a.2/V.L.5, a.2/V.L.6 y a.2/V.L.7 en fase de construcción en el área A.I.U.9 los números 5, 7, 9, 11, 13 y 15 de Aiotzategi kalea.

A continuación se procede a la votación del dictamen, que se **aprueba** por unanimidad.

5.- EHBildu taldearen mozioa: "Kataluinarekin bat, demokraziarekin bat"

Alkateak hitza pasa dio Andoni zinegotziari eta azken horrek bere taldearen mozio hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

"Urte luzeetako prozesu baten baitan eta herritarren gehiengo baten eskariari atea irekiz, etorkizuna libreki erabakitze bitarteko demokratikoz hornitu du Kataluniako herriak bere bidea. Kataluniako instituzio nagusiek herritarren nahiei bide emateko erabaki irmoa hartu dute.

Katalunian herritarren borondatearen eskutik eman diren urratsek, Madrilen aldetik indarraren, mespretxuaren eta zaharkitutako legeen ustezko arrazoiarekin erantzun da.

Bide demokratikoen aurkako eraso larri honen aurrean, Astigarragako Udalak honako mozio hau eztabaidatu eta onartzen du:

1.- Udal honek, zilegitasun osoa aitortzen dio Kataluniako Parlamentuak egingo duen autodeterminazio erreferendumari. Izan ere, libreki adierazitako herritarren borondatea da tresna politikorik eraginkorrena edozein herri

5.- Moción de EHBildu: "con Cataluña, con la democracia"

La alcaldesa le cede la palabra al concejal Andoni, quien presenta, para su aprobación, la siguiente moción que ha presentado su grupo:

"En el marco de un proceso de largos años, y abriendo las puertas a la demanda de una mayoría de la ciudadanía, el pueblo de Cataluña se ha dotado de recursos democráticos para poder decidir libremente su futuro. La principales instituciones de Cataluña han decidido firmemente dar paso a la voluntad de la ciudadanía.

Los pasos que se han dado en Cataluña con el apoyo de la voluntad de la ciudadanía, han sido contrarrestados desde Madrid con la supuesta razón de la fuerza, del desprecio y de leyes obsoletas.

Ante este grave ataque contra las vías democráticas, el Ayuntamiento de Astigarraga debate y aprueba la siguiente moción:

1.- Este Ayuntamiento reconoce la total legitimidad del referéndum que el Parlament de Cataluña desea llevar a cabo. Y es que la voluntad de la ciudadanía libremente



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

edo kolektiboren etorkizuna eraikitzeko.

2.- Udal honek, Kataluniar herriaren eta Parlament-aren erabaki burujabeen aurka Espainiar estatutik buruturiko erasoak salatu eta arbuiatzen ditu. Madrilgo Gobernu, epaitegiak eta Auzitegi Konstituzionala ezin direlako Kataluniako herritarren gehiengo zabalak adierazitako borondate demokratikoaren ginetik jarri.

3.- Modu demokratikoan aukeratuak izan diren Kataluniako alkateak deklaratzera deitzea irmoki salatzen dugu. Demokrazia praktikan jartzea ahalbidetu nahi duten alkateak inputatzea deitoratzen du.

4.- Udal honek, Euskal Herria, Katalunia edo munduko gainerako herrietan, herritarren borondate askean oinarrituta garatzen dituzten prozesu politikoen alde egiteko konpromisoa hartzen du.

5.- Udal honek urriaren bateko emaitza errespetatzen du eta Instituzio zein eragileei ere berdina egitea eskatzen die. Horretarako erabaki honen berri, Kataluniako Parlament-eko lehendakariari, Madrilgo Gobernuako presidenteari eta Auzitegi Konstituzionaleko presidenteari ematea erabakitzen du. Gure udalerriko herritarrei ere jakinaraziko zaie erabaki honen berri.

6.- Urriaren bateko galdeketa bitarte Udaleko balkoian estelada jartzea onartzen du Udalbatzak”

Alkateak hitza hartu eta adierazi du mozio honekin zalantzak izan dituztela, pentsatzen zutelako aurkeztuko zela Eusko Legebiltzarrean EAJ-PNV, EHBildu eta Elkarrekin Podemos taldeek aurkeztutakoa. Gaineratu du berek azken hori ez aurkeztearen arrazoia izan dela ez zaielako iruditzen udal osoko bilkurak horrelako gaiarik aztertu behar duenik.

Bestalde, adierazi du mozioaren 6. puntua onartzeak auzi-errekurtso bat ekar dezakeela, eta udal-idazkariak adierazi dioenez, bere egunean udalak antzerako bat galdu zuela. Halaber, adierazi du bere taldea abstenitu egingo dela,

expresada constituye el instrumento político más eficaz para la construcción del futuro de cualquier pueblo o colectivo.

2.- Este Ayuntamiento denuncia y rechaza el ataque del estado español contra las decisiones soberanas del pueblo de Cataluña y del Parlament. Porque el Gobierno de Madrid, los tribunales y el Tribunal Constitucional no pueden estar por encima de la voluntad democrática expresada por una amplia mayoría de la ciudadanía de Cataluña.

3.- Rechazamos rotundamente llamar a declarar a alcaldes democráticamente elegidos por los ciudadanos de Cataluña. Nos oponemos a la imputación de los alcaldes catalanes que quieren poner en práctica un derecho democrático.

4.- Este Ayuntamiento se compromete a apoyar los procesos políticos que se desarrollen basados en la libre voluntad de su ciudadanía en Euskal Herria, en Cataluña o en los demás pueblos del mundo.

5.- Este Ayuntamiento respeta y pide respetar los resultados de referéndum del 1 de octubre a las distintas instituciones y organismos. Para ello, se resuelve dar cuenta de esta resolución a la presidenta del Parlament de Cataluña, al presidente del Gobierno de España y al presidente del Tribunal Constitucional, así como a la ciudadanía de nuestro municipio.

6.- Se aprueba que la estelada ondee en el balcón del ayuntamiento hasta la celebración de la consulta del 1 de octubre, como muestra de apoyo al pueblo catalán y a sus instituciones.”

Toma la palabra la alcaldesa y señala que han tenido dudas con la moción, ya que pensaban que se iba a presentar la propuesta en el parlamento por Nacionalistas Vascos, EHBildu y Elkarrekin Podemos. Añade que la razón de que ellos no la hayan presentado se debe a que consideran que no es un tema a analizar en el pleno.

Por otro lado, ha señalado que el punto 6 de la moción puede conllevar la interposición de un



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

eta.

Jarraian, legebiltzarrean aurkeztutako adierazpen instituzionala irakurri du:

1.- Eusko Legebiltzarrak kezka adierazi eta baztertu egiten du egitateen bidez Kataluniako autonomian esku hartzeagatik, eta Estatuko segurtasun indar eta kidegoek egindako operazio polizialagatik, zeinaren bidez erregistroak eta atxilotetak egin baitiren Generalitateko instalazioetan bere arduradun legitimoei.

2.- Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari eskatzen dio bertan behera utz dezala oinarritzko eta funtsezko askatasunen errepresio-estrategia, demokrazioaren oinarritzko printzipioen aurkakoa.

3.- Eusko Legebiltzarrak berretsi egiten du funtsezko printzipio demokratiko guztiekiko konpromisoa, eta elkertasuna adierazten die Catalunya-ko herriari, eta baita demokraziaren aurkako errepresio politikoa – Espainiako Gobernuak gidatutakoa – pairatzen diharduten pertsona eta erakunde guztiei.

4.- Eusko Legebiltzarrak dei egiten du Kataluniako herriaren asmo demokratikoaren adierazpena ahalbideratzea eta erabakiak errespetatzera.

Mikel zinegotziak hitza hartu eta azaldu du gaia 2000. urtetik datorrela, estatutua aldatu nahi izanez geroztik eta mozioaren kontrako jarrera duela; batetik, legearen (Parlament-aren erregelamenduaren, estatutuaren eta Konstituzioaren) kontra doalako, hots, ilegaltzat hartu delako; eta bestetik, oposizioaren eskubidea urratu delako.

Adierazi du elkarriketa politikoaren aldekoak direla, eta hori dela dagoen bide bakarra nazioen nazio bat eratzeko, eta hori lortzea bultzatuko dutela –besteak beste, Parlamentuan batzorde baten eraketa bultzatuz– baina legalitatearen errespetua gauza guztien gainetik dagoela.

Gaineratu du mozioaren 3. puntuan jasotakoarekin ados dagoela, eta bere

recurso, y que la Secretaria le ha comentado que antaño el Ayuntamiento ya perdió uno similar. Y adelanta que su grupo se va a abstener.

A continuación ha dado lectura a la declaración institucional propuesta en el parlamento:

1.- El Parlamento Vasco muestra su rechazo y alarma por la intervención por la vía de hecho de la autonomía catalana y por la operación policial llevada a cabo por las fuerzas y cuerpos de seguridad del Estado que ha conllevado registros y detenciones en instalaciones y responsables legítimos de la Generalitat.

2.- El Parlamento Vasco insta al Gobierno de España a desistir en su estrategia represiva de libertades básicas y fundamentales contraria a los principios básicos de la democracia.

3.- El Parlamento Vasco reafirma su compromiso con todos los principios democráticos fundamentales y muestra su solidaridad con el pueblo de Catalunya y todas las personas e instituciones que están padeciendo la represión política y antidemocrática dirigida por el Gobierno de España.

4.- El Parlamento Vasco insta a que se posibilite la expresión de la voluntad democrática del pueblo de Catalunya y se respete su decisión.

Toma la palabra el concejal Mikel, para señalar que el tema viene del año 2.000, cuando quisieron modificar el estatuto, y que está en contra de la moción, por una parte porque va en contra de la ley (reglamento del Parlament del estatuto y Constitución), esto es, porque se ha declarado ilegal, y, por otro, porque se ha vulnerado el derecho de la oposición.

Señala que están a favor del diálogo político, y que esa es la única manera de crear una nación de naciones, por lo que impulsarán dicho diálogo, favoreciendo, entre otras, la formación de una comisión parlamentaria, pero que el respeto de la legalidad está por encima de todas las cosas.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

solidaritatea eskaini nahi diela legea betetzeagatik, mehatxuak eta erasoak jasan dituzten Kataluinako alkateei.

Udaleko alderdien bozeramaileen lehen parte hartze hau, alderdi desberdinen eztabaida piztu du.

Andoni zinegotziak azaldu du aurkeztu duten mozioaren 2 eta 3 puntuak Jaurlaritzan aurkeztutakoaren 4. puntuarekin bat datorrela, eta ondorioz, EAJ-PNV alde egon beharko lukeela.

Bestalde, adierazi du egoera honekin PSOE alderdiak ere ardura duela, eta gaineratu du Konstituzioan betetzen ez diren hainbat eskubide daudela (ingurugiroa, etxebizitza...), askotan Estatuak berak urratzen dituela eskubideak (hitzaldiak egitea debekatzea, esaterako) eta legala izatea ez duela bermatzen demokratikoa izatea (azken hori herriaren erabakitzeke eskubidea barneratzen baitu). Bukatzeko, historian zehar egon diren hainbat adibide eman ditu.

Mikel zinegotziak azaldu ditu egoera zuzentzeko bere egunean – Zapateroren garaian – emandako urratsak, eta nola dagoen txosten juridiko bat jasotzen duena antolatutako enreferenduma ilegal dela. Gaineratu du PP eta Puigdemont egoerarekin pozik daudela, horrela ez delako beste gai batzuetaz hitz egiten (esaterako, korrupzioa); eta irtenbidea izango litzatekeela bi alderdiek ados jartzea eta legezko enreferenduma egitea.

Alkateak erantzun dio enreferendum legala egitea oztopatzen duena Estatua dela, eta ez duela eman beste interbinderik. Jarraian, EHBildu taldeari galdetu dio zein Estelada jarri nahi duten.

Andoni zinegotziak, aldiz, adierazi du: batetik, Kataluinak beti nahi izan duela akordio batetara iritsi, baina ez dietela beste irtenbiderik eman, lortu nahi dena herritarren iritzia jakitea dela, eta ekitaldi paketsua dela; eta bestetik, ez duela pentsatzen norbait kartzelan bukatu nahi duenik. Gaineratu du Eta egoeraren arduraduntzat joa dituen PP, Ciudadanos eta PSOE.

Añade que está de acuerdo con lo recogido en el punto 3 de la moción, y que quiere mostrar su solidaridad a los alcaldes y a las alcaldesas que han sufrido amenazas y ataques por cumplir la ley.

Esta primera participación de portavoces de los partidos municipales motiva un debate entre los diferentes partidos.

El concejal Andoni explica que los puntos 2 y 3 de la moción que han presentado coinciden con el punto 4 de la presentada en el Gobierno Vasco, por lo que EAJ-PNV debería estar a favor.

Por otra parte señala que el PSOE también tiene su responsabilidad, añadiendo que en la Constitución existen una serie de derechos que no se cumplen (medio ambiente, vivienda...), que en muchos casos el propio Estado infringe derechos (prohibiendo la celebración de conferencias, por ejemplo), y que el hecho de que algo sea legal no garantiza que sea democrático (pues eso último incluye el derecho a decidir del pueblo). Para finalizar, señala algunos ejemplos acaecidos a lo largo de la historia.

El concejal Mikel señala los pasos dados en su día, en tiempos de Zapatero, para corregir la situación, y que existe un informe jurídico que establece que el referéndum organizado es ilegal. Añade que el PP y Puigdemont se encuentran a gusto en esta situación, porque así evitan que se hable de otros temas (por ejemplo, corrupción), y que la solución consistiría en que ambos partidos se pusieran de acuerdo para la celebración de un referéndum legal.

La alcaldesa le responde que es el Estado quien se opone a la celebración de un referéndum, no habiendo ofrecido ninguna otra solución. A continuación, pregunta al grupo EHBildu qué clase de Estelada quieren colocar.

Por su parte el concejal Andoni señala que, por una parte, en Cataluña siempre han estado a favor de llegar a un acuerdo, pero que no les han dado otra oportunidad, y que se trata de conocer la opinión de la ciudadanía, a través de un acto pacífico. Por otra parte, indica que no piensa que nadie quiera terminar en la cárcel.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Mikel zinegotziak bere alderdikideek jasaten dauden egoera salatu du, bai alderdikideek jasan dituzten “escrache”ak, bai lokalen erasoak. Eta bertaratuei eskatu die horiek salatzea.

Andoni zinegotziak adierazi du edozein eraso salagarria dela, eta Mikel zinegotziak, penagarritzat jo du hiru parte hartze behar izana salaketa egiteko.

Herritar batek hartu du hitza eta Katalana dela adierazi ondoren, EHBildu taldeari eskerrak eman dizkio mozioa aurkeztu izanagatik. Azaldu du egoeraren arazoa ez dela 2000. urtekoa, aurretik datorrela, eta gogora ekarri du XX. mende hasieran Katalunako Estatu aldarrikatzeagatik izandako fusilamenduak. Gaineratu du legala kontzeptu abstraktoa dela, eta horren adibiderako adierazi du, besteak beste, garai batean fusilamenduak legalak zirela, eta hainbat lekutan -ere- heriotza-zigorra legala dela.

Mikel zinegotziak erantzun dio bere alderdia ez dagoela horren alde, eta adierazi du garai hartan ez zegola Estatu Zuzenbidea (**Estado de Derecho**) eta beti egon direla Francoren diktaduraren kontra.

Alkateak hitza hartu eta adierazi du Katalunian pasatzen ari dena “krisi demokratiko” handi bat dela, eta gaineratu du ezin dela juridikoki baloratu (juristak ez baitira) eta mozio politiko bat dela. Azaldu du bere taldeak ez zuela eztabaida honetan sartu nahi, baina mozioa osoko bilkurara ekarri nahi zutela. Eta bukatzeko adierazi du estatuaren antolaketa aldatu egin behar dela, eta erreferenduma bi aldeen akordioarekin egin behar zela, baina Estatuak ez duela sekula baimentzen, eta ez dagoela nola konpondu arazoa.

Andoni zinegotziak Mikel zinegotziari galdetu dio erreferenduma onartuko lukeen, eta azken horrek erantzun dio baietz baldintza hauek betez gero: legez antolatzen izatea, itundua eta herritar guztiak baldin badute bozkatzeko aukera edukitzea. Eta gaineratu du EAJ-PNV eta EHBildu taldeak aukera izan dutela beste gobernu bat aurkeratzeko.

Jon zinegotziak hartu du hitza eta adierazi Katalunako arazoa ez dela 2010eko, atzerago

Responsabilizando de la situación al PP, a Ciudadanos y al PSOE.

El concejal Mikel denuncia la situación que están sufriendo sus compañeros/as de partido, “escraches” y ataques a locales. Y pide a las personas presentes que denuncien esos hechos.

El concejal Andoni señala que cualquier ataque es denunciabile, y el concejal Mikel considera lamentable que hayan hecho falta tres intervenciones para realizar la denuncia.

Un ciudadano toma la palabra, y, tras señalar que es catalán, agradece al grupo EHBildu el hecho de haber presentado la moción. Explica que no es un problema del año 2.000, sino que viene de antes, recordando los fusilamientos perpetrados a principios del siglo XX por declarar el Estado de Cataluña. Añade que la legalidad constituye un concepto abstracto, señalando a modo de ejemplo que hubo un tiempo en que los fusilamientos eran legales, y que en muchos sitios la pena de muerte está legalizada.

El concejal Mikel le responde que su partido no ha estado nunca a favor de esos hechos, que en aquellos tiempos no existía el Estado de Derecho, y que siempre han estado contra la dictadura de Franco.

La alcaldesa toma la palabra y señala que lo que está pasando en Cataluña supone una “gran crisis democrática”, y añade a continuación que no pueden valorarla jurídicamente porque no son juristas, y que lo que se está discutiendo en el pleno es una moción política. Explica que su grupo no deseaba entrar en ese debate, pero que sí querían traer la moción al pleno. Y para finalizar señala que hay que modificar la organización del estado, y que el referéndum debía haberse realizado tras llegar a un acuerdo entre las partes, pero que el Estado no está dispuesto a permitirlo, por lo que se trata de un problema sin solución.

El concejal Andoni pregunta al concejal Mikel si aprobaría un referéndum, y este último le contesta afirmativamente, siempre y cuando se cumplan una serie de condiciones: que haya sido legalmente autorizado, convenientemente



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

joan behar dela, gutxienez 1930. urtera, baina Erdi Aroan ere kokatu daitekeela. Euskal Herriarekin gertatzen den moduan.

Jarraian, irizpena bozkatzeari ekin zaio, eta **onartu** da aldeko 6 botoekin (EHBilduko kideak), 6 abstentzioekin (EAJ-PNVko kideak) eta kontrako boto batekin (Euskadiko Sozialisteko kideak)).

pactado, y que toda la ciudadanía tenga la oportunidad de votar. Y añade que tanto EAJ-PNV como EHBildu podían haber elegido otro gobierno.

El concejal Jon toma la palabra y señala que el problema de Cataluña no es de 2010, sino que hay que ir mucho más atrás, por lo menos al año 1930, pero que también podría ubicarse en la Edad Media. Como ocurre con Euskal Herria.

A continuación se procede la votación del dictamen, que se **aprueba** con 6 votos a favor (de los miembros de EHBildu) 6 abstenciones (de los miembros de EAJ-PNV) y 1 voto en contra (del miembro de Socialistas Vascos).

6.- Informazio, galdera eta eskariak.

a.- Ikastola handitze eta haur eskolako eraikin berria.

Andoni zinegotziak gaia zertan dagoen galdetu du.

Alkateak azaldu dio ikastola handitzeko aukeren inguruko azteketa aste honetan iritsiko dela, eta horren berri batzordean emango dela. Gaineratu du, azterketa ikastolako zuzendaritza eta guraso elkartearekin ere aztertuko dela, eta kontuhartzaileari txostena eskatuko zaiola. Eta guzti horiek eduki ondoren, batzordeak erabakiko duela zein proiektu bideratuko den.

Haur eskola berriaren harira, alkateak azaldu du kostuen azterketa aste honetan -ere- iritsiko dela.

b.- Aurrekontu parte-hartzaileak

Andoni zinegotziak kritikatu du aurrekontu partehartzailearen inguruko informazioa ez jaso izana. Adierazi du duten informazio bakarra etxeetan – beste herritarrek bezala – jasotakoa dela, eta galdetu du informazioa zein batzordetan (ogasuna edo parte-hartze batzordea) eskatu behar duten. Bukatzeko, eskatu dio udal gobernu taldeari, hurrengo urteari begira, prozesua azkarrago bideratzeko, aurten irailaren bukaeran oraindik ez baita

6.- Información, ruegos y preguntas.

a.- Ampliación de la ikastola y nuevo edificio de educación infantil.

El concejal Andoni pregunta en qué punto se encuentra el tema.

La alcaldesa le indica que el estudio sobre las posibilidades de ampliación de la ikastola llegará esta semana, y que se dará cuenta de ello en la comisión. Añade que también se analizará con la directiva de la ikastola y la asociación de madres y padres, y que se le pedirá un informe a la interventora. Y una vez que se disponga de todo ello, la comisión decidirá a qué proyecto se le dará curso.

Al hilo de la nueva escuela infantil, la alcaldesa señala que el estudio de los costes llegará también esta semana.

b.- Presupuestos participativos

El concejal Andoni critica no haber recibido información en torno al presupuesto participativo. Señala que la única información de que disponen –al igual que el resto de la ciudadanía– es la que han recibido en sus casas, y pregunta en qué comisión (hacienda o participación) deben solicitar información. Para concluir, solicita al equipo de gobierno municipal, de cara al próximo año, se instruya el proceso con mayor rapidez, dado que este



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

erabaki herritarrek hautatu dezaketen inbertsio-gastua zertarako erabiliko den.

Alkateak erantzun dio Galtzaurreko obra martxoan hastekoak zirela, baina udal-aurrekontuarekin arazoak egon zirela.

Bestalde, Nerea zinegotziak erantzun dio parte-hartze prozesuaren 1. fasearen informazioa eman zutela, eta 2. fasearena eman ez bada, parte-hartze batzorderik egin ez delako izan dela, baina hautestontzi-irekieran egon zela, eta beraz, informazioa bazuela.

año a finales de septiembre aún no se ha podido decidir para qué fin se utilizará el gasto de inversión que puede elegir la ciudadanía.

La alcaldesa le responde que estaba previsto que la obra de Galtzaur comenzase en marzo, pero que ha habido problemas con el presupuesto municipal.

Por su parte, la concejala Nerea le responde que facilitaron información de la 1ª fase del proceso participativo, y que si no se ha facilitado la de la 2ª fase ha sido porque no ha habido comisión, pero que estuvo presente en la apertura de la urna y que, por lo tanto, disponía de información.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2017ko irailaren 27an.

Kontxi Urdampilleta Santamaría
Ordezko idazkaria